



Murgian, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita hamaikan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

ALKATEA

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ JN. (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)

CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)

LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA JN. (EAJ-PNV)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU) (18:50ean heldu da)

JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)

LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakariaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

En Murgia a treinta y uno de enero de dos mil diecinueve, siendo las dieciocho horas y treinta minutos, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, D^a Susana Zubiaur Zorrilla.

ALCALDE

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

CONCEJALES ASISTENTES

DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)

DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

DON JUAN MANUEL LARRAZÁBAL NÚÑEZ (EH Bildu)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)

DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)

DON LUIS ALBERTO RUIZ DE OLANO APODACA (EAJ-PNV)

DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU) (llega a las 18:50 horas)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.



Aurreko bilkuraren akta ikusirik, Lopez zinegotzi andreak zehaztu du 10. Galderak eta eskaerak izeneko aztergaian, EAJ/PNV taldeak Baias ibaiko 8 pasabideen hornidura-lanak egiteari buruz egindako eskaera jasota gera zedila komentatu zuenean, esan zuela *Aldundiari edo dagokionari eskatu behar zitzaiola* Baias ibaiko zortzi pasabideen tartean hornidura lanak, gobernu-taldeak udalak berak egitea proposatu zituenak, egin zitzan edo horietarako *diru-laguntza* eman zezan.

Udalbatzak aho batez onartu du akta zuzenketa horrekin.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak 2018ko abenduaren 12ko 390. zk.ko dekretutik abenduaren 28ko 444.era arte eta 2019ko urtarrilaren 4ko 1. zk.ko dekretutik urtarrilaren 24ko 20.era arte eman dituen xedapenen berri eman da.

Sautu zinegotzi jaunak abiadura mugatzeko seinaleen zuzkidura-kontratuari buruzko 421. zk.ko dekretuaren inguruan galdetu, eta alkateak jakinarazi dio Domingo de Sautu kaleko erabilera bietarako dagoen tartera zuzenduta daudela eta oraindik jarri gabe daudela, iritsi ez direlako, eskatuta egon arren; Murgian lurperatutako edukiontzia zuzkitu eta jartzeko kontratazio-espeditentean lehen postuan sailkatutako enpresari zigorra jartzeko 431.aren inguruan ere galdetu du eta alkateak jakinarazi dio eskatutako administrazio-agiriak ez aurkezteagatik eskaintza ezabatu delako dela.

Egindako ordainketak direla-eta, emakumeenganako indarkeria ezabatzearen alde sentikortzeko Udalak antolatutako ekintzara bertaratutakoen datuen inguruan galdetu du Eguiluz zinegotzi jaunak, eta Elorza zinegotzi andreak erantzun dio ez

Vista el acta de la sesión anterior, por parte de la Concejal Sr. López se puntualiza que en el punto 10. Ruegos y Preguntas cuando comentó que constara la petición formulada por el grupo EAJ/PNV sobre la ejecución de las obras de abastecimiento de los 8 pasos del río Baias, dijo de *solicitar a Diputación o a quien corresponda la ejecución o la subvención* para las obras de abastecimiento en el tramo de los ocho pasos del río Baias que había propuesto ejecutar el equipo de gobierno por el propio Ayuntamiento.

La Corporación por unanimidad aprueba el acta con esa corrección.

2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 390 de 12 de diciembre al nº 444 del 28 de diciembre de 2018 y del nº 1 del 4 de enero al nº 20 del 24 de enero de 2019.

El Concejal Sr. Sautu pregunta sobre el N° 421 referente al contrato de suministro de señales limitadoras de velocidad, informando el Alcalde que están destinadas al tramo de coexistencia de la C/Domingo de Sautu y aún no están instaladas porque no han llegado, pero están pedida; el 431 por el que se le impone una penalidad a la empresa clasificada en 1º lugar en el expediente de contratación del suministro e instalación de contenedores soterrados en Murgia, informando el Alcalde que es por haber retirado su oferta al no presentar la documentación administrativa exigida.

Respecto a la relación de pagos realizados, el Concejal Sr. Eguiluz pregunta sobre los datos de asistencia a la actividad organizada por el Ayuntamiento de sensibilización para la eliminación de la violencia hacia las mujeres, contestándole



dakiela baina Berdintasun teknikariari galdetuko diola.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- POSTA OFIZIALA

3.1.- Arabako Foru Aldundia:

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak urriko eta azaroko nahitaezko diru-bilketaren zerrenda bidali eta hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko zergaren tasei buruzko informazioa galdetu du.

- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak 29.12.19tik aurrera autobus-linearen zerbitzuetan izango diren aldaketak bidali ditu. Alkateari ordutegi berriari buruz galdetu eta erantzun die probaldian daudela, batzuei hobeto datorkiela ordutegi hau, baina beste batzuei, ordea, ez.

- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak: ondare historiko-arkitektonikoko zerbitzuarekin izapideak eta jarduketak egiteko harremanak elektronikoki egin behar direla jakinarazi du; elurrari dagokion zatia ukatzeagatik, kirol-jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren ordainketaren aurrean jarritako errekurtoa onartzen ez duen 334. Foru Aginduaren berri eman du; azken idazki honen inguruan alkateak diru-laguntza murriztearen zergatiak azaldu ditu: eskirako gastuak baztertu dira Euskadik kanpo egiteagatik.

- Gizarte Zerbitzuek: Murgiako Maria Sortzez Garbiaren Egoitza handitzeko proiektuaren II. fasea izeneko oinplano berriko eraikina funtzionamenduan jartzeko baimena ematen duen Foru Agindua jakinarazi du; eta EAZ kudeatzeko eskumena eta ardura eskuordetzeko Aldundiaren eta Udalaren arteko hitzarmenaren 2 ale bidali ditu, sinatzeko.

la Concejal Sra. Elorza que lo desconoce pero se lo preguntará a la Técnica de Igualdad.

La Corporación se da por enterada.

3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.

3.1.- Diputación Foral de Álava:

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos remite relación de la recaudación ejecutiva de los meses de octubre y noviembre y solicita información sobre tipos impositivos del Impuesto de bienes inmuebles urbanos, rústicos y de características especiales.

- Infraestructuras viarias y movilidad remite variaciones en los servicios de línea de autobús a partir del 26.12.19. Le preguntan al Alcalde sobre el nuevo horario, a lo que contesta que están en periodo de prueba, a unas personas les viene mejor este horario pero a otras no.

- Euskera, Cultura y Deportes comunica la obligación de relacionarse electrónicamente para la realización de trámites y actuaciones con el servicio de patrimonio histórico-arquitectónico, comunica la Orden Foral 334 que desestima el recurso interpuesto frente al pago de la subvención concedida para la realización de actividades deportivas por denegar la parte correspondiente a la nieve; respecto a este último escrito el Alcalde explica las razones que han llevado a reducir la subvención: exclusión de los gastos de esquí al realizarse fuera de Euskadi.

- Servicios Sociales comunica la Orden Foral que autoriza la puesta en funcionamiento del edificio de nueva planta denominado fase II del proyecto de ampliación de la Residencia Purísima Concepción de Murgia y remite 2 ejemplares del convenio de delegación de competencias y encomienda de gestión del S.A.D. entre Diputación y el Ayuntamiento para su firma.



- Ingurumen eta Hirigintza Sailak honako hauek jakinarazi ditu: eskatutako plano aurkeztu ostean, Murgiako UE-2 exekuzio-unitatearen Ituntze Batzarra onartzen duen Foru Agindua; Lukiano, Aperregi eta Giliernako saneamendu eta arazketa proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikaturako kontsulten epealdia hasi dela; eta Lukiano eta Bitoriano artean zuntz optikoko banda zabala jartzeko kanalizazio-proiektuaren interes publikoa adierazten duen 9/2019 Foru Agindua.

- Diputatu Nagusiaren Sailak, 2018an emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen programa gauzatu eta justifikatzeko epearen luzapena onartzen duen foru-dekretuaren berri eman du.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak, 2018ko aurrekontuaren espedientea jaso izanaren berri eman du.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, EALZ egokitze lanetarako diru-laguntza emateko ebazpena aldatu dela jakinarazi du eta baliogabetu egin du 2018an ez egiteagatik.

3.2.- Eusko Jaurlaritzaz:

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, Zuian belaunaldi berriko banda zabalaren sarea zabaltzeko prozesuaren (PEBA proiektua) berri eman du.

- IHOBek hondakin eta bestelakoetarako laguntzen oinarriak jakinarazi ditu.

- Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailak 2019. urteko Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintza eta arrantza azoken gida bidali du.

- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak, landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak eman eta

- Medio Ambiente y Urbanismo comunica la Orden Foral de aprobación de la Junta de Concertación de la UE-2 de Murgia una vez presentado el plano requerido, el inicio del periodo de consultas para la evaluación simplificada de impacto ambiental del proyecto de saneamiento y depuración de Lukiano, Aperregi y Guillerna y la Orden Foral 9/2019 que declara de interés público el proyecto de canalización para la instalación de banda ancha de fibra óptica entre Lukiano y Bitoriano.

- Diputado General informa del decreto foral que aprueba la ampliación del plazo de ejecución y justificación para programas de actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombre de 2018.

- Desarrollo Económico y Equilibrio territorial acusa recibo del expediente de presupuesto 2018.

- Instituto Foral de Bienestar Social comunica la modificación de la resolución de concesión de subvención para obras de acondicionamiento del CRAD y anula la misma al no haberse ejecutado en 2018.

3.2.- Gobierno Vasco:

- Gobernanza Pública y Autogobierno informa del proceso de extensión de la red de banda ancha de nueva generación en Zuia, proyecto PEBA.

- Ihobe informa de las bases de ayudas para residuos y otros.

- Agricultura, Pesca y Política alimentaria remite guía de ferias agrícolas y ganaderas y pesqueras del País Vasco del año 2019.

- Desarrollo Rural y Litoral y Políticas europeas remite resolución de 12 de diciembre de 2018 por el que se conceden y deniegan ayudas solicitadas destinadas a la promoción y desarrollo y a



ukatzen dituen 2018ko abenduaren 12ko ebazpena bidali du.

- Gizarte Gaiak/Lanbidek 2018ko abenduko DSBE nomina bidali du.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 2018ko Udalplana bidali du.

3.3.- EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartea:

- Arabako Diputatuen Kontseiluaren erabakia eta Aldundiari EAZren eskumena 2020ko ekainera arte eskuordetzeko eredia bidali ditu.
- 2019ko soldata-igoerei buruzko gomendioari buruzko zirkularra bidali du.

3.4.- Ogasun Ministerioa:

- Diru-laguntzen datu-base nazionalak laguntza-tresnei eta bertan inskribatu beharreko bestelakoei buruzko informazio-oharra bidali du.

Aztergai hau amaitutakoan, 18:50ean direla, Susana Martínez de Aramayona zinegotzi andrea gehitu da bilkurara.

4.- 2019RAKO AURREKONTU PROPOSAMENA.

Alkateak, atzoko eta aurreko egunetako Informazio Batzordeetan azaldutakoa errepikatuz, 2019ko ekitaldirako aurrekontuen proposamena aurkeztu du, gizarte-taldeekin, Kontzejuekin eta udal-taldeekin izandako bileren ondoren, eta gai garrantzitsuenak azaldu ditu:

- Sarreraren egoera: ez dago berritasun handirik aurreko ekitaldiarekin alderatuz eta sarrerak 2018an izandako diru-bilketaren arabera aurreikusitako, zabor-bilketaren tasaren onartutako igoerarekin eta, Aldundiak bidalitako jakinarazpenaren arabera, PEFFFen

la diversificación económica de los municipios rurales.

- Asuntos sociales/Lanbide remite nómina RGI diciembre 2018.
- Medio Ambiente, planificación territorial y vivienda remite Udalplan 2018.

3.3.- EUDEL-Asociación de Municipios Vascos:

- Remite acuerdo del Consejo de Diputados de Álava y modelo sobre la nueva delegación de competencia en Diputación del SAD hasta junio de 2020.
- Remite circular con recomendación sobre incrementos retributivos para empleados públicos 2019.

3.4.- Ministerio de Hacienda:

- La Base de datos nacional de subvenciones remite nota informativa sobre instrumentos de ayuda y otros a inscribir en la misma.

Finalizado este punto se incorpora a la sesión la Concejala D^a Susana Martínez de Aramayona, siendo las 18:50 horas.

4.- PROPUESTA DE PRESUPUESTOS PARA 2019.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa de ayer y anteriores, presenta la propuesta de presupuesto para el presente ejercicio 2019, tras las reuniones mantenidas con los grupos sociales, los Concejales y los grupos municipales, y expone las cuestiones más destacadas:

- Estado de ingresos: no hay gran novedad respecto al ejercicio anterior y los ingresos se han previsto en función de la recaudación obtenida en 2018, con la subida aprobada lo que se refiere a tasa del servicio de basuras, y el incremento del FFOFEL según la comunicación cursada



igoerarekin; gainerakoa ia berdin mantentzen da.

- Gastuen egoera: Partida batzuk kendu dira ez zirelako egiten eskatzen ez zirelako edo ez zelako egitea aurreikusten (diru-laguntzak Zuia Naturalari eta Erlezainei, edo laguntza Javier Ruiz de Larrinagari) eta beste batzuetan gutxitu egin da esleipena azken urteetan izandako emaitzaren arabera (diru-laguntza familia behartsuei, etxebizitzaren alokairua).

- Berritasun bezala, autoa partekatzeko 2.000 euroko aplikazioa aurreikusi da.

- 37.000 eurotan handitu da Kontzejuetako kaleak garbitzeko zerbitzura zuzendutako partida, azken horiek eskatuta.

- Berdintasun-arloko ekintzetarako partida sortu da.

- Etxez etxeko laguntza beharrak diruz laguntzera zuzendutako 16.000 euroko partida sortu da. Behar horiek ez dira EAZek kudeatzen dituenak eta 4. kapituluan jaso dira.

- EAZera zuzendutako 10.000 euroko partida jaso da, bertako erabiltzaileentzat, eta 2. kapituluan jaso da.

- 2.000 euro esleitu zaio Korrikarako diru-laguntzari.

- Jolasak mantentzera zuzendutako 8.000 euroko partida berezia sortu da.

- Honako hauek ospatzeko diru-laguntza izendunak aurreikusi dira: Master Cup Pilota (1.500 €), La Blanca lasterketa (1.500 €), Ametzagako Ziklokrosa (4.000€) eta Ziklokroseko Prestakuntza Campusa (2.000 €).

Ondoren, hitz egiteko txanda eman zaie bertaratutakoei.

EAJ/PNV taldea: Ircio zinegotzi andreak idazki bat irakurri du:

por Diputación; el resto se mantiene prácticamente.

- Estado de gastos: se han eliminado algunas partidas porque no se ejecutaban al no solicitarse o no está previsto realizar (subvenciones a Zuia Naturala, Apicultores, patrocinio Javier Ruiz de Larrinaga) y se reduce la consignación en otras en función de lo que ha resultado los últimos años (subvención familias necesitadas, alquiler de vivienda).

- Como novedad se ha previsto una aplicación por importe de 2.000€ para compartir coche.

- Se ha incrementado a 37.000€ la partida destinada al servicio de limpieza de calles de los Concejales a petición de estos últimos.

- Se crea la partida destinada a actividades en materia de igualdad

- Se crea una partida dotada con 16.000€ destinada a subvencionar necesidades de atención domiciliaria, diferentes de las gestionadas por el SAD y es un capítulo 4.

- Se incluye una partida por importe de 10.000€ destinada al SAD para las personas usuarias del mismo y es un capítulo 2.

- Se dota la subvención a la Korrika con 2.000€.

- Se crea una partida específica destinada a mantenimiento de juegos con un importe de 8.000€.

- Se prevén subvenciones nominativas para celebrar la Master Cup Pilota (1.500€), carrera La Blanca (1.500), Ciclocross Ametzaga (4.000€) y Campus formación ciclocross (2.000€).

A continuación concede el turno de palabra a los presentes.

Grupo EAJ/PNV: la Concejala Sra. Ircio da lectura a un escrito:



“Legegintzaldi honetan beti babestu ditugu aurrekontuak, gure ustez egiten ari zen elkarlanari erantzunez. Gure proposamenak jaso eta gauzatzaren ziren hein handi edo txikiago batean.

Baina, azken ekitaldian ikusi dugu EAJ-PNV udal-taldeak egindako proposamenak ia kontuan ez izateaz gain, ez direla gauzatu. Aurrekontuan jaso ziren bakar-bakarrik onar genezan. Hona hemen adibideetako batzuk:

Autobidetik Murgiaraino irteeratik errepideko bazterbidea, legegintzaldi honetako aurrekontu guztietan jorratu dugun gaia, horietakoren batean partida jaso ere jaso delarik; **Aldundiak, gainera, Udalak eragindako lurrak bere eskura jartzen zuen momentuan egingo zuelako konpromisoa hartu zuen.**

Taxi tabernaren lursaila egokitzea, batzuen informazio-panel bihurtu dena eta hiritarrei eta bisitariei irudi ezin txarragoa ematen diena, plazan egindako lanei balioa kentzeaz gain.

San Martin kaleko lurperatutako edukiontzia berritzea; dekretuetan ikusi dugunaren arabera esleipena egin berri da, hau da, urtebete behar izan da gutxienez bi urte zigilaturik dauden lau edukiontzi esleitzeko. Era berean, ez da gauzatu **Sarria-Ametzaga bidea, adinduentzako etxez etxeko laguntza zerbitzu osagarria edo Bea-Murgia plazako jolasen estalkia,** azken hau aurrekontutik kendu delarik.

Halaber, beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatu eta horiek lortu dituzten proiektu berriak aipatu behar ditugu, izan ere, edo ahaztuta utzi dira alde bakar batek erabakita, edo ez dugu ulertzen

“Nuestro apoyo a los presupuestos durante esta legislatura siempre ha sido positivo como respuesta al trabajo colaborativo que creíamos que se estaba llevando a cabo. Nuestras propuestas en mayor o menor medida eran recogidas y ejecutadas.

Pero sin embargo, en este último ejercicio vemos que las propuestas planteadas por el grupo municipal EAJ-PNV apenas no sólo no se han tenido en cuenta, sino que además no se han ejecutado. Se incluyeron en el presupuesto únicamente para que lo aprobemos. Aquí tenemos unos ejemplos:

El arcén en la carretera desde la salida de la autovía hasta Murgia, tema que llevamos tratando en todos los presupuestos de esta legislatura e incluso en alguno ha habido una partida incluida y para el que Diputación se comprometió a realizarlo en el momento en que el Ayuntamiento pusiera a su disposición los terrenos afectados.

El acondicionamiento de la parcela del bar taxi, que se ha convertido en el panel informador de algunos y que da una imagen pésima a la ciudadanía y a los visitantes de la zona amén de restar valor a las obras realizadas en la plaza.

La renovación de los contenedores soterrados de la calle San Martín que según hemos visto en los decretos se acaba de realizar la adjudicación, se tarda un año en adjudicar cuatro contenedores que llevan al menos dos años precintados. Al igual que el **camino Sarria-Ametzaga** que no se ha ejecutado, el **servicio complementario de la ayuda domiciliaria a personas mayores o la cubierta de juegos de la plaza Bea-Murgia** que se ha quitado del presupuesto.

También debemos señalar los grandes proyectos para los que se han solicitado subvenciones a otras entidades y para los que se nos han concedido esas ayudas, pero que o bien se ha decidido



2019erako aurrekontu honetan horiekin jarraitzeko partidarik ez aurreikustea, hala nola, **kiroldegiaren berrikuntza, kultura-zentroa, etab.**

Beste gai bat, aurreko ekitaldiaren erdialdera oso premiazkoa zena eta gauzatzeko hirurehun mila euro bideratzea ere behar zituena, hau da, **uren hornidura-sarearen Baias ibaiko pasabideak**, ez dira aurrekontuan jaso.

Eta azkenik, eta aurreko urteko gai nagusia izan behar izan zuena, **hiri-antolamenduko plan nagusia**, ia hasi ere ez dena egin, gobernu-taldearen esanetan, kudeatzeko astirik egon ez delako.

Gero eta higiezin gehiago ditu udalak, baina inolako plangintzarik gabe, bihozkadaka jarduten da. Gure aburuz, udalerraren garapen egokirako beharrezkoa da plana lehenbailehen egitea eta udalaren utzikeria iruditzen zaigu horren inguruan lanik ez egitea, denok jakin baitakigu prozesu luzea izan arren, onurak bailararen etorkizunean eragingo duela."

PP taldea: Sautu zinegotzi jaunak dio aurreratu nahi duela aurrekontuaren aurka bozkatuko duela: ez dago ados irabazi asmorik gabeko erakundeen diru-laguntzei zuzendutako partidarekin, preso familiaria ordezkatzeko duenarekin, ez dagoelako antolatzen dituzten ekitaldiekin ados. Bere iritziz, gehiegi finantzaturako partidak daude, beti soberako saldo handi samarra izaten dutelako, eta batzuk, ordea, litezkeen ezustekoetarako zuzkitu ahal direla uste du. Bestalde, susmoa du udala erosi eta bereganatzen ari den higiezinekin (etxebizitzetarako, kultura-etxerako, ...) ez ote diren etorkizuneko aurrekontuak hipotekatuko horien mantentze-gastuekin.

unilateralmente dejarlas olvidadas o no entendemos que en este presupuesto 2019 no se contemple ninguna partida para seguir avanzando, **reforma del polideportivo, centro cultural, etc.**

Otro tema, que a mediados del ejercicio anterior era muy urgente e incluso había que habilitar cerca de trescientos mil euros para su ejecución, como son los **pasos por el río Baias de la red de abastecimiento de aguas**, no se ve recogido en el presupuesto.

Y ya por último y lo que debería haber sido el punto principal de este pasado año, **el plan general de ordenación urbana**, que prácticamente no se ha empezado, según el equipo de gobierno por falta de tiempo para gestionarlo.

El ayuntamiento tiene cada vez más inmuebles, pero sin ninguna planificación, se actúa por impulsos. Creemos necesario para el buen desarrollo del municipio la realización del plan cuanto antes y vemos una dejación por parte del ayuntamiento el no trabajar en su realización ya que todos sabemos que es un proceso largo pero que el beneficio va a redundar en el futuro del valle"

Grupo PP: el Concejal Sr. Sautu dice que adelanta que votará en contra del presupuesto: no está de acuerdo con la partida destinada a subvenciones a instituciones sin ánimo de lucro, que sustituye a la de familiares de presos, porque no está de acuerdo con los actos que se organizan. Existen partidas que considera están sobre financiadas porque siempre resultan con un considerable saldo sobrante, no así otras, que puede entender que se doten para posibles imprevistos. Por otra parte tiene la sensación que con los inmuebles que el Ayuntamiento está comprando y adquiriendo (para viviendas, casa de cultura,..), se van a hipotecar los futuros presupuestos con los gastos de mantenimiento de los mismos.



ZBG/ZNU taldea: Alonso zinegotzi jaunak esan du alde bozkatuko dutela; aintzat hartu diren proposamenak egin dituzte, ken litezkeen partidak daudela uste badute ere, eta tartean, aholkularitza juridikoa eta udal-langileek arta litezkeen ekintzak kanpo-kontratazioen bitartez egitera zuzendutako partidak.

Alkateak zehaztu du beti bezala gonbidatu zaiela udal-taldeei aurrekontuak egin eta negoziatzera, eta aurten ZBG/ZNU taldeak baino ez duela parte hatu; bere ustez, egia ez diren hainbat gauza esan dira: Batzarrak eskatu zuen Murgiako bazterbidea egitea eta Aldundiak gaia noiz aztertuko eta erosi beharreko lur-eremua zehaztuko duen proiektua noiz egingo zain daude; Taxi tabernaren hesia dela-eta, udalak bere esku dagoen guztia egin du, lursaila txukuntzeko eta itxitura arau subsidiarioek eskatutakoaren arabera egokitzeko dagokion exekuzio-agindua izapidetuz, eta hertsapen-zigorra ezarri eta errekurtoa ere jarri da. Jolasen estalkia, aurrekontuan aurreikusita zegoena, ez da Obren Foru Planean sartzen, Baias ibaiko hornidura-hodiaren 8 pasabideetarako 300.000 euroak ez dira barne hartu atzera bota eta Aldundiari edo zegokionari eskatzea proposatu zutelako; HAPO dela-eta, onartu dute, onartu, ez direla idazketa-taldearen gainean egon, eta aldizkako bilerak zehaztu dituzte. Bestalde, Sautu zinegotzi jaunak esandakoari dagokionez, oso partida zehatzak aipatzen dituztela uste du eta erantzun dio SAREk antolatzen dituen jardunaldiak ez direla euskal preso politikoengan oinarritzen, giza eskubideetan baizik. Soberakina duten partidak izateak kudeaketa hobea bermatzen du, eskasak badira ere, eta azkenik, udalak eraikinak erosteak ez du zertan gastu handiagoa sortu behar, kultura-etxearen kasuan salbu, azpiegitura berri bakarra baita. Otsoa Eribeko zinegotzi

Grupo ZBG/ZNU: el Concejal Sr. Alonso dice que van a votar a favor; han realizado propuestas que han sido atendidas, aunque piensan que hay partidas que se podrían suprimir, como el asesoramiento jurídico y partidas destinadas a la realización de actividades mediante contrataciones externas que podrían ser atendidas con personal en plantilla del Ayuntamiento.

El Alcalde hace una matización y es que se ha invitado como siempre a participar en la elaboración o negociación de los presupuestos a los grupos municipales, y este año solamente ha asistido ZBG/ZNU; piensa que hay cosas que se han dicho que no son ciertas: la ejecución del arcén de Murgia lo solicitó la Junta y está pendiente de que Diputación estudie el tema y haga el proyecto donde concrete el terreno necesario para adquirir, respecto al vallado de la parcela del bar taxi el Ayuntamiento ha hecho lo que está en su mano, tramitando la correspondiente orden de ejecución para adecentar la parcela y adaptar el cierre a lo exigido en NNSS e incluso les ha impuesto una multa coercitiva y ha sido objeto de recurso. La cubierta de los juegos, que estaba prevista en el presupuesto no entra en el Plan Foral de Obras, los 300.000€ de los 8 pasos de la tubería de abastecimiento en el río Baias no se ha incluido porque lo rechazaron y propusieron que se solicitara a Diputación o a quien correspondiera; respecto al PGOU sí han reconocido no haber estado encima del equipo redactor, y ya han concretado reuniones periódicas. Por otra parte, respecto a lo manifestado por el Concejal Sr. Sautu, piensa que alude a partidas muy concretas y le contesta que las jornadas que organiza SARE no se centran en presos políticos vascos sino de derechos humanos, que la existencia de partidas con sobrante garantiza una mejor gestión que si se quedan cortas, siempre y cuando no sea mucho el sobrante, y finalmente, respecto a



jaunak gehitu du beharrezkoa dela alokairuko etxebizitzak eskaintzea, eta higiezin horiekin finkatu egiten dela Murgiako erdigunea, lorategia, aparkalekua, kultura-etxea,... izatean.

Sautu zinegotzi jaunak berriro ere esku hartu eta esan du, gobernu-taldeak planteatutako etxebizitza-beharra bere pertzepzioa dela uste duela, tasatutako etxebizitzak eraikitzen saiatu direnean ez duela aurrera egin eskaririk ez zegoelako; interesatutako jende askok izena eman nahi arren, gauzatu behar zenean ez zegoen eskatzailerik.

Azkenik, bozkatu egin da.

Udalbatzak, gehiengoz, hots, EH-Bildu (4) eta ZBG/ZNU (3) taldeetako zinegotzien aldeko botoarekin, EAJ/PNV taldekoen (3) abstentzioarekin eta PPkoaren (1) aurkakoarekin ondorengo ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Udalaren 2019ko ekitaldirako aurrekontua eta aurrekontu-plantilla, aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauarekin batera, onartzea, amaieran kapituluka laburtutako xehetasunaren arabera.

BIGARRENA.- Espedientea hamabost egunez jendaurrean jartzea, alegazioak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik egon ezean espedientea behin betiko onartuta dagoela ulertzea eta, egotekotan, beste erabaki bat hartzea.

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.

la adquisición de edificios por el Ayuntamiento que no tiene por qué generar más gasto, salvo en el caso de la Kultur etxea al ser la única infraestructura nueva, añadiendo el Concejal Sr. Otsoa Eribeko que es necesario ofertar vivienda en alquiler, y con estos inmuebles se consolida el centro de Murgia al disponer de jardín, aparcamiento, Casa de cultura,....

Interviene nuevamente el Concejal Sr. Sautu quien respecto a la necesidad de vivienda que plantea el equipo de gobierno piensa que es una percepción suya, porque cuando se ha intentado la construcción de vivienda tasada no ha prosperado por falta de demanda; aunque se apuntaba mucha gente como interesada, a la hora de la verdad no había solicitantes.

Finalmente se procede a la votación.

La Corporación por mayoría, con el voto favorable de los Concejales de EH-Bildu (4) y ZBG/ZNU (3), la abstención de EAJ/PNV (3) y el voto en contra del PP (1) ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar el presupuesto y la plantilla presupuestaria para el ejercicio 2019, junto con la Norma Municipal de Ejecución presupuestaria, conforme al detalle que resumido por capítulos se recoge al final.

SEGUNDO.- Exponer el expediente al público por el plazo de quince días a efecto de alegaciones.

TERCERO.- Considerar aprobado el expediente definitivamente si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentario.



BOSGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkari izan.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

AURREKONTUA

SARRERAK:	Euro
1. Zerga zuzenak:.....	1.061.141,61
2. Zeharkako zergak:.....	50.000,00
3. Tasak eta bestelako sarrerak:	376.174,88
4. Transferentzia arruntak:...	1.406.894,00
5. Ondare-sarrerak:.....	300.834,53
6. Egiatzko inbertsioak besterentzea:	180.000,00
GUZTIRA:.....	3.375.047,02

GASTUAK:	Euro
1. Langile-gastuak:.....	534.420,46
2. Ondasun arrunten eta Gizarte Segurantzaren gastuak:.....	1.588.172,47
4. Transferentzia arruntak:....	540.553,88
6. Egiatzko inbertsioak:.....	457.900,21
7. Kapitalaren transferentziak:	254.000,00
GUZTIRA:.....	3.375.047,02

5.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KUDEATZEKO ESKUMENA ETA ARDURA ESKUORDETZEKO ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZUIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEA, ALDUNDIAK BIDLITAKO PROPOSAMENAREN ARABERA.

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, gizarte-zerbitzuak Aldundiak kudeatutako baldintzetan aldi batez mantentzeko buruzko 2016ko abenduaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia 2020ko ekainaren 26ra arte luzatzea proposatu du. Era berean, Aldundiak Etxez etxe Laguntza Zerbitzuaren kudeaketaren eskumena eta

PRESUPUESTO

INGRESOS:	Euros
1. Impuestos directos:.....	1.061.141,61
2. Impuestos indirectos:.....	50.000,00
3. Tasas y otros ingresos:....	376.174,88
4. Transferencias corrientes:..	1.406.894,00
5. Ingresos patrimoniales:....	300.834,53
6. Enajenación inversiones reales:.....	180.000,00
TOTAL:.....	3.375.047,02

GASTOS:	Euros
1. Gastos de personal:.....	534.420,46
2. Gastos en bienes corrientes y ss:.....	1.588.172,47
4. Transferencias corrientes:..	540.553,88
6. Inversiones reales:.....	457.900,21
7. Transferencias de capital:..	254.000,00
TOTAL:.....	3.375.047,02

5.- PRÓRROGA DE LA DELEGACIÓN DE COMPETENCIA Y ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZUIA DE ACUERDO CON LA PROPUESTA REMITIDA POR DIPUTACIÓN.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone prorrogar hasta el 26 de junio de 2020 el acuerdo del Consejo de Diputados de 26 de diciembre de 2016, sobre el mantenimiento provisional de los servicios sociales en los términos en que se han venido gestionando por Diputación. Igualmente da cuenta de la remisión del convenio de delegación de



ardura eskuordetzeko hitzarmena (2018.06.21ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bitartez onartutakoa) bidali duela jakinarazi du, sinatze aldera. EH-Bildu taldeak alde bozkatuko duela gehitu du, baina zerbait zehaztuz: azpimarratu nahi du 2016. urtetik gizarte-mapa martxan jarrita egon behar zela eta ez dela egin, Aldundiaren etengabeko blokeoa dela, hala EAJ/PNVrena nola Gizarte Ongizatearena.

Ondoren, bozkatu egin da.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Gizarte-zerbitzuen aldi baterako mantentzea, Etxez etxeko laguntza-zerbitzua salbu, eta dagokion prezio publikoa kobratzea (horien kudeaketa Aldundiari eskuordetu zaizkio kudeaketaren ardurarekin batera hitzarmenaren bitartez, Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriek orain arte kudeatu duten baldintzetan) onartu zuen abenduaren 26ko Gobernu Kontseiluaren 904/2016 erabakia 2020ko ekainaren 26ra arte luzatzea, bere garaian adostutako baldintza berberetan. Epealdi horretan, mapa egiteko eraturako Erakunde arteko Mahaiak beharrezko baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu gizarte-zerbitzu guztiak eraginkortasunez emateko, bakoitzari dagokion eskumen-esparruaren barruan, eta adierazitako epealdian pixkanaka ezarriko dira.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko

competencia y encomienda de gestión del Servicio de Ayuda a domicilio (aprobado por acuerdo del Pleno celebrado el 21.06.2018) por parte de Diputación para su firma. Añade que el grupo EH-Bildu va a votar a favor, pero hacen constar una matización: quieren recalcar que desde el año 2016 ya tenía que estar puesto en marcha el mapa social y no se ha hecho, es un continuo bloqueo por parte de Diputación, tanto de EAJ/PNV como de Bienestar Social.

A continuación, se procede a la votación.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar hasta el 26 de junio de 2020 el acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre, que aprobaba el mantenimiento provisional de los servicios sociales, a excepción del Servicio de Ayuda a domicilio y cobro del correspondiente precio público que han sido objeto de delegación junto con la encomienda de la gestión del mismo a Diputación con el correspondiente convenio, en los términos que se han venido gestionando por la Diputación y por los municipios del Territorio Histórico de Álava con población inferior a 20.000 habitantes, en los mismos términos que los acordados en su momento. En este periodo, la Mesa Interinstitucional constituida para la elaboración del mapa propondrá los recursos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la efectiva prestación de todos los servicios sociales en el marco competencial que a cada uno corresponda, que se irán implantando progresivamente durante el periodo señalado.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del



behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkartzan, etxez etxeko Laguntza Zerbitzua kudeatzeko eskumena eta ardura eskuordetzeko aipatu hitzarmena barne hartuta.

HIRUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari erabaki honen kopia bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.

6.- TXOSTENAK.

Otsoa Eribeko zinegotzi jaunari hitza eman eta honakoa jakinarazi du:

- Udalak egindako inkestari buruz: herritarrak nahastuta daude, agentzia bat beste inkesta bat egiten ari delako telefonoz; udalak kontratatutakoa telefono finkoen bidezko inkestak (adinduei zuzendutakoak) barne hartzen ditu, eta etxez etxeko bisitak eta Bigarren Hezkuntzako Institutura (gazteak), beraz, ia amaituta dute zerbitzua 180 iritziren laginketarekin.

7.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDETZEKO ETA PREMIAZKO GAIAK.

Gai-zerrendan aurreikusi gabeko ondorengo aztergaia gehitzea erabaki du Udaltzarak aho batez:

7.1.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko 3. teknikariaren lanaldia.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan lanean hasiko den teknikari berriari aplika dakioken lanaldiari buruzko erabakia hartu behar dela esan du alkateak. Jakinarazi du Koadrilako udalerrri guztiek hartu dutela, dagoeneko, lanaldi osoa ezartzeko erabakia, batek izan ezik, %50eko lanaldia aukeratu

Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo, incluido el convenio referido a la delegación de competencia y encomienda de gestión del Servicio de ayuda domiciliaria recibido ahora.

TERCERO.- Remitir copia de este acuerdo a la Diputación Foral de Álava a los efectos oportunos.

6.- INFORMES.

Concedida la palabra al Concejil Sr. Otsoa Eribeko informa:

- Sobre la encuesta realizada por el Ayuntamiento: hay confusión entre la población, porque se está realizando otra encuesta telefónica por parte de una agencia; la contratada por el Ayuntamiento incluye encuestas vía teléfonos fijos (destinada a personas mayores), y de forma presencial con visitas a domicilios y al Instituto de Enseñanza Secundaria (gente joven), con lo cual ya casi tienen finalizado el servicio con el muestreo de 180 opiniones.

7.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.

La Corporación por unanimidad acuerda incluir el siguiente punto no previsto en el orden del día:

7.1.- Jornada del 3º puesto técnico del Servicio Social de Base.

El Alcalde dice que hay que adoptar el acuerdo sobre la jornada aplicable a la nueva persona técnica prevista incorporar al Servicio Social de Base. Informa que todos los municipios de la Cuadrilla ya han adoptado el acuerdo y excepto uno, que opta por un 50%, han acordado disponer de



baitu. Diru aldetik, urtean 6.500 euro gehiago suposatzen du.

EH-Bildu taldeak lanaldi osoa onartzea proposatu du.

Proposamena bozkatu eta Udaltzaskak, gehiengo osoz, hots, EH-BILDU (4), EAJ/PNV (3) eta ZBG (3) taldeetako zinegotzien aldeko botoarekin eta PPkoaren (1) abstentzioarekin ondorengo ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- %100eko lanaldi osoa onartzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan lanean hasiko den 3. teknikariarentzat.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren egintzak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkariaren.

8.- GALDERAK ETA ESKAERAK

Sautu zinegotzi jaunak ondorengo galderak egin ditu:

- Ea Domingo de Sautu kaleko 22. zenbakiko higiezin erosteko Foru Planari egin zitzaion eskaera egin zenean horren helburua zehaztu zen, eta alkateak baietz erantzun dio, kulturarako eskatu zela, eta horregatik Guillerna zuzendari jaunak esan zuela horrela izan ezean, uko egiteko.

- Ea konpostagailuak martxan dauden, eta baiezkotan, nola dabilzan: alkateak esan du komunitatekoak martxan direla eta udalak horiek kontrolatzeko kontratatutako enpresa Vermican, S.L. dela.

- Ea Osasun Zentroaren inguruko berririk dagoen: alkateak esan du Osakidetza aurreko ekonomia-arduradunarekin (Ricardo Ituarte) eta lan-

jornada completa. A efectos económicos supone unos 6.500€ más al año.

El grupo EH-Bildu propone aprobar la jornada completa.

Sometida la propuesta a votación, la Corporación, por mayoría absoluta, con el voto favorable de los Concejales del grupo EH-Bildu (4) EAJ/PNV (3) y ZBG (3) y la abstención del PP (1), ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar una dedicación completa del 100% para la 3ª persona técnica que se incorporará al Servicio Social de Base.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la Cuadrilla y facultar al Sr. Alcalde-Presidente o a quien legalmente le sustituya, para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice los actos que sean precisos en ejecución del mismo.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El Concejales Sr. Sautu realiza las siguientes preguntas:

- Si cuando se hizo la solicitud a Plan Foral para la compra del inmueble de la C/Domingo de Sautu 22 se concretó el destino de la misma, contestándole el Alcalde que sí, para cultura, y por ello el Director Sr. Guillerna dijo que si no fuera así, se renunciara a la misma.

- Si las compostadoras están funcionando y en caso afirmativo cómo van: el Alcalde dice que las comunitarias sí funcionan y la empresa que lo controla contratada por el Ayuntamiento es Vermican S.L..

- Si hay alguna noticia del Centro de Salud: el Alcalde comenta que estuvieron con el anterior responsable económico (Ricardo Ituarte) y el responsable de obras



arduradunarekin (Eneko Zarraoa) egon zirela eta Kontsultategia jartzeko bi aukerez hitz egin zirela: Bitorianorako errepideko finka eta Murgiakoa, baina ez duela erantzunik eman.

- Udalaren enplegu-plana Lanbideren diru-laguntza deialdiaren babespean: alkateak jakinarazi dio bi pertsona kontratatu dituztela, emakume bat eta gazte bat, eta abenduaren 26tik daudela lanean.

Lopez zinegotzi andreak Larrabizkaleko edukiontzien kokapena aldatzeko edo garbitzeko eskatu du, beti oso zikin daudelako.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:50ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

(Eneko Zarraoa) de Osakidetza y les hablaron de las 2 opciones para ubicar el Consultorio: la finca de la Ctra. de Bitoriano y la de Murgia, pero no han dado contestación alguna.

- Plan de empleo municipal al amparo de la convocatoria de subvenciones de Lanbide: el Alcalde le informa que se han contratado dos personas, una mujer y un joven, y están desde el 26 de diciembre.

La Concejala Sra. López solicita el cambio de ubicación de los contenedores de Larrabizkal o su limpieza, dado el estado de suciedad que presentan de forma permanente.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 19:50 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,